ehunmilak
goierriko2haundiak
marimurumendi
ARAUDIA 2024

Antolatzailea: Arrastaka Mendi Taldea

FUNTSEZKO OINARRIAK

ERRESPETUA

Lasterketa honen oinarrizko araua errespetua da; bai nork bere buruarekiko, baita boluntario, korrikalari eta ikusleekiko ere.

Aldi berean, ingurumenarekiko errespetua funtsezkoa bilakatzen da. Errespeta itzazu fauna eta flora.

Markatutako bidetik ez ateratzeak lekuaren higadura eta hondatzea ekidingo ditu.

ELKARTASUNA

Elkartasuna lasterketa mota hauetako beste oinarrizko balore bat da. Guztiaren gainetik arrisku egoeran dagoen edozein partaideri lehentasunez lagunduko diogu.

EZAGUTU ZURE MUGAK

Proba honetan norbera muga-mugako egoeretara iritsiko da. Bakoitzak bere barnean dituen ala ez eta ezagutzen ez dituen baliabideak bilatu beharko ditu.

Ultra distantzia, duintasunetik pixka bat eta apaltasunetik asko daukan proba da.

ARAUDIA

1. artikulua: **ANTOLAKUNTZA**

Beasaingo Arrastaka Mendi Kirol Taldeak (G-20956157, Kirol Elkarteetako Erregistroan 3875 zenbakia izanik, eta otsailak 14ko 29/1989 dekretuko baldintzak betez) ehunmilak / g2h / mmm antolatzen ditu Goierri, Urola, Urola kosta, Debagoiena eta Tolosaldeako eskualdeen babesarekin.

2. artikulua: **PROBA**

ehunmilak mendiko Ultra-Trail® (iraupen luzeko/ultra fondo mendiko lasterketa) 171 km eta 21.000 metroko desnibel metatua du eta 5 eskualdeetako mendiak zeharkatzen ditu bide eta bidexketatik zehar. Irteera eta helmuga Beasainen ditu eta proba burutzeko gehienez 48 orduko muga izango da. Mendi zeharkaldi honek hainbat gailur zeharkatzen dituenez, baldintzak oso gogorrak izan daitezke (gaua, haizea, hotza, euria). Ondorioz, segurtasunerako beharrezkoa den materiala eramatea eskatzen du (26 artikulua). Beharrezkoa da prestaketa oso ona izatea eta ibilbidea egin ahal izateko autonomia pertsonalerako gaitasun handia edukitzea.

Antolakuntzak kilometro gutxiagoko bi proba antolatzeko aukera aurreikusten du. ehunmilakekin batera, Goierriko bailara zeharkatuko duen goierriko2haundiak (hemendik aurrera g2h bezala izendatua), Beasain izango du abiapuntu Aralar eta Aizkorriko Parke Naturalen inguruak igarotzeko. ehunmilaken ibilbidea jarraituz, lasterketak 90 km-ko distantzia izango du, 11.000 metroko desnibel metatua.Eta bestetik, marimurumendi marathon (mmm izendatua). Honek ere, Beasain izango du abiapuntu eta Beasain inguruko mendixketatik igaroko da;lasterketak 42 km eta 4.600 metrotako desnibel metatua izango du.

Hiru proba hauek Federacion Vasca de Montaña / Euskal Mendizale Federazioak (FVM/EMF) onartuta daude.

Partaideek antolakuntzak emandako argibideak jarraitu beharko dituzte. ehm/g2h/mmm probetan parte-hartzeak, araudi hau eta antolakuntzak www.ehunmilak.com helbidean argitaratutako lasterketaren etika onartzea dakartza berekin.

3. artikulua: **DATAK**

Probak **2024ko uztailaren 12, 13 eta 14an** egingo dira.

4. artikulua: **PROGRAMA**

ehunmilak

- Uztailak 11, osteguna: 17:00-20:00 h **dortsalak jasotzea**
- Uztailak 12, ostirala: 10:00-15:00h **dortsalak jasotzea**
- Uztailak 12, ostirala: 12:30-16:00 h **pasta party**
- Uztailak 12, ostirala:13:00-17:00h korrikalariak erabili behar duen materiala daukan **poltsak eta dutxarako poltsa uztea**
- Uztailak 12, ostirala: 17:00-17:45 h **irteera kontrola. Parte-hartzaile guztiek irteera-kontrolean 17:45erako egon behar dute**
- Uztailak 12, ostirala: 18:00 h **lasterketaren irteera**
- Uztailak 13, larunbata: 16:30 h aldera **lehen korrikalariaren helmugaratzea**
- Uztailak 14, igandea: 18:00 h irabazleen jakinarazpena eta **sari banaketa**

g2h

- Uztailak 11, osteguna: 17:00-20:00h **dortsalak jasotzea**
- Uztailak 12, ostirala: 10:00-13:00 h eta 18:30-20:30h **dortsalak jasotzea**
- Uztailak 12, ostirala: 12:30-16:00 h **pasta party**
- Uztailak 12, ostirala: 13:00-22:00h korrikalariak erabili behar duen **materiala daukan poltsa eta dutxarako poltsa uztea**

- Uztailak 12, ostirala: 22:00-22:45 h **irteera kontrola. Parte-hartzaile guztiek irteera-kontrolean 22:45erako egon behar dute.**
- Uztailak 12, ostirala: 23:00 h **lasterketaren irteera**
- Uztailak 13, larunbata: goizeko 08:30-9:00h aldera, **lehen korrikalariaren helmugaratzea**
- Uztailak 14, igandea: 18 h irabazleen jakinarazpena eta **sari banaketa**

mmm

- Uztailak 13, larunbata: 18:30-20:30 h **dortsalak jasotzea**
- Uztailak 14, igandea: 06:30-07:30 h **dortsalak jasotzea eta dutxako poltsan uztea.**
- Uztailak 14, igandea: 07:15-7:45 h **irteera kontrola. Parte-hartzaile guztiek irteera-kontrolean 7:45erako egon behar dute**
- Uztailak 14, igandea: 08:00 h **lasterketaren irteera**
- Uztailak 14, igandea: goizeko 11:30-12:00 h aldera, **lehen korrikalariaren helmugaratzea**
- Uztailak 14, igandea: 18 h irabazleen jakinarazpena eta **sari banaketa**.

Oharra: probaren antolakuntzak ordutegiak aldatzeko eskubidea izango du.

5. artikulua: **ERDI-AUTOSUFIZIENTZIA**

Lasterketaren arau nagusia erdi-autosufizientzia da. Hau da, ingurunea kontutan hartuta, korrikalari bakoitzak duen biziraupen gaitasuna bi anoa postuen artean, bai elikadura, arropa edo segurtasun aldetik aurreikus daitezkeen arazoei laguntzarik gabe aurre egiteko ahalmena (gaixotasuna, arazo psikikoak, zauriak, …)

Korrikalari bakoitzak lasterketa guztian zehar derrigorrezko materiala eraman beharko du. Material hau erakustea ezinbestekoa izango da dortsala erretiratzerako garaian. Horrez gain, lasterketako edozein momentutan kontrol-postuetako arduradunek material horren errebisio-eskaera egin dezakete. Korrikalari guztiak behartuak daude kontrol hori pasatzera, gainontzean lasterketatik kanporatuak izango dira.

Maratoi modalitatean ez da beharrezkoa izango 26. artikuluan zehazten den derrigorrezko materiala eramatea.

Anoa postuak lekuan bertan jan eta edan beharko diren janari/edariez horniturik egongo dira.

Maratoiaren kasuan, korrikalariak anoa postua baino 100 metro gerorago arte jaten eta edaten jarraitu ahalko du.

Ur-poto eta ur-poltsak urez bakarrik bete ahal izango dira anoa postuetan (ibilbiderako beste edari motarik hartzea ez da onartuko). Korrikalari bakoitzak

anoa postutik ateratzen den unean hurrengo anoa postura iritsi arteko janari/edariak eduki beharko ditu.

Modalitate ezberdinetan parte hartzen duten korrikalariek soilik izango dute anoa postuetara sartzea. Salbuespen gisa, korrikalari bakoitzeko, parte hartzaileen artean izena emanda ez dagoen lagun bakar baten egonaldia baimenduko da Azpeitia, Tolosa, Etzegarate eta Mutiloan aurreikusita dauden postuetan korrikalariak dauden denboran. Etzegarateko anoa postuan, eta arrazoi logistikoak tarteko, g2h lasterketan ez da laguntzaileen sarrerarik baimenduko eta ehm lasterketaren kasuan gehienez ere, aldi berean 30 lagun egotea baino ez da baimenduko.

Maratoian, anoa postua baino 100 metro lehenago eta geroago, kanpo laguntza jasotzeko aukera izango da.

Edozein kasutan ere, ehm/g2h probetan, eta anoa postua edozein dela ere, korrikalarien lagunek ezingo diote korrikalariari inongo janik, edanik edo materialik erraztu. Lasterketak erdi-autosufizientzian burutu behar dira eta kanpo laguntzak zigortuta daude (29. artikulua).

Korrikalari bakoitzaren lagunak behar bezala identifikatuta joan beharko du, antolakuntzak hornitutako akreditazioa momentu oro ikusgai daramalarik. Ezingo du anoa postuko edozein janari, edari, material edo gai erabili.

Korrikalari guztiek dortsala ondo ikusteko moduan eraman beharko dute anoa postuan sartzerakoan ere (23. artikulua).

Nahiz eta anoa kontrolean geratzeko asmorik ez izan, partaide bakoitzak derrigor pasatu beharko du kontroletik.

ehunmilak lasterketan bakarka edo hiruko taldea osatuz parte har daiteke. g2h/mmm lasterketan aldiz bakarka izango da.

Ibilbidea lasterketarako bereziki seinaleztatuta egongo da

Debekatuta dago, proban izena eman gabe dagoen beste pertsona batez edo animalia batez ibilbidean edota baimendutako guneetatik kanpo lagunduta joatea.

Korrikalari bakoitzak mendiko baldintzak jasateko material egokia eduki beharko du, beharrezko materialaz gaindi.

6. artikulua: **IZEN-EMATEAK**

ehm / g2h lasterketetan, 2004ko uztailaren 12a baino lehenago jaiotako edozein gizon eta emakumeri irekita dago. mmm lasterketan berriz, 2006eko uztailaren 14a baino lehenago jaiota egon beharko da. Antolakuntzak, ekitaldi hau estaliko duen istripu oinarrizko aseguru bat egingo dio parte hartzaile bakoitzari. Parte-hartzaile bakoitzak, aseguru honez gain, bere propioa eduki dezake inongo arazorik gabe.

ehm/g2h lasterketek bakoitzak gehienez 550 partaide izango ditu, izen-emate ordena jarraituz. Maratoiaren partaide kopuru maximoa 350koa izango da. Gehienezko partaide kopuruak betetzen diren kasuan, itxaro-zerrenda irekiko da. Bajak dauden heinean, itxaro-zerrenda horretatik beteko dira. Beti ere, izen-emate epe-muga iritsi arte. Data horretatik aurrera izen-emateetan ez da itxaron zerrendatik altarik emango. Itxaro-zerrendako izen-emateak izena emandako ordena berean formalizatuko dira. Lasterketarako plaza egonez gero, antolakuntza lasterkariarekin jarriko da harremanetan plaza eskaintzeko. Hark 72 orduko epea izango du izen-ematea formalizatzeko. Epe horren barruan izen-ematea formalizatuko ez balu, plaza galduko du eta itxarote-zerrendan hurrengo lasterkaria denari deituko diote.

Dauden 1450 dortsaletatik, antolakuntzak bere erabilerarako 150 dortsal erreserbatuko ditu. Modu honetan banatuta: 27 dortsal 2023an podium izan diren korrikalarientzat, 60 dortsal nazioarteko parte-hartzea sustatzeko (pakete turistikoak), 30 dortsal babesle-laguntzaileentzat, 10 dortsal prentsako korrikalarientzat, 15 dortsal laguntzaile aktiboentzat, 6 dortsal gonbidatutako eliteko korrikalarientzat eta 2 dortsal Beasain Challenge sarituentzat. Amaieran erabiltzen ez diren dortsalak erabilpen orokorrera bideratuko dira.

ehm lasterketan parte hartuko duten taldeak hiru kidez osatuta egongo dira. Izen-emate prozesuan, taldeko kideek, bakarka, bakoitzak bere orrian, taldearen izena jarri beharko dute, dagokion laukitxoan. Taldekide guztiek egun berean eman beharko dute izena.

Izen-emateak internet bidez egingo dira lasterketaren web ofizialean, kreditu txartelaren bidez, 2023ko azaroaren 9ko 17:00etatik aurrera. ehm lasterketan kasuan, izen-ematea zuzenekoa izango da, hau da, inskripzioa egiten den unean bertan ordaindu beharko da. g2h eta mmm lasterketen kasuan, hasierako inskripzioa itxaro-zerrendan izango da, izena emateko unearen arabera ordenatuta. Itxaro-zerrenda hori publikoa izango da eta www.ehunmilak.com webgunean kontsultatu ahal izango da. Arratsaldeko 18:00etan, g2h-ko lehen 550 izen-emateak eta mmm lehen 350ak izena emateko aukera izango dute. Horretarako, email bat jasoko dute beharrezko argibideak azalduz, eta 72 ordu izango dituzte izena ematearen ordainketa egiteko (izen-ematea epe horretan formalizatu ezean, plaza galduko da). Behin ordainketa eginda, izen-emate hori izena emandakoen zerrendara pasako da.

Izen-emate epea 2024ko ekainaren 13an amaituko da. Data horretatik aurrera ez da izen-materik formalizatuko, antolakuntzak izan ditzakeen konpromisoak salbu.

Ez dira dortsal aldaketak onartuko ezta dortsala lagatzea ere. Horrez gain, ez dira distantzia aldaketak baimenduko (lasterketa aldaketak).

Datuak Babesteko Araudi Orokorra (RGPD) betetzeko, lasterkariaren izena hirugarren batek edo mendiko talderen batek emango balu, izen-emate horren titularra den lasterkariak sinatuta bidali beharko du astebeteko epean Hirugarren batzuek Izena emandako Lasterkariari dagokion klausula. Hala egin ezean, izen-ematea automatikoki baliogabetuko da eta ez da horren zenbatekoa itzuliko. Antolakuntza jarriko da lasterkariarekin harremanetan

aipatutako klausula emateko edo jarraitu beharreko izapidetzearen berri emateko.

Izen-emateak zera bermatzen du:

- Lasterketan parte-hartzea
- Istripu asegurua
- Erantzukizun zibileko asegurua
- Lasterketan osasun-laguntza
- Masaje zerbitzua lasterketak dirauen bitartean (Tolosa eta Etzegarate) eta lasterketa ondoren (polikiroldegian)
- Podologia zerbitzua lasterketak dirauen bitartean (Tolosa eta Etzegarate) (***)
- Ternuak diseinaturiko lasterketako oroigarria. Jantzi bat bada, dortsala jasotzean ezin izango da aldatu inskripzioa egindako unean aukeratutako neurria.
- Anoa-postuak
- Dutxak (Tolosa, Etzegarate eta helmuga). Maratoian helmugan soilik.
- Doako autobus zerbitzua parte hartzaileentzat: ibilbide guztian zehar eta helmuga-dutxa-helmuga ibilbidean.
- Doako autobus zerbitzua laguntzaileentzat ibilbide guztian zehar
- Pasta party
- Antolakuntzak zehaztutako puntuetara korrikalariaren materiala garraiatzeko poltsa/zakuak. (***)
- Zaborra botatzeko mailazko poltsatxoa. (***)
- Lasterketaren informazioa eta ibilbidearen profilak dituen pantonera. (***)
- Road Booka (korrikalariaren eskuliburua)
- Txip bidezko kronometraje sistema: ehunmilak 17 kontrol-puntu / g2h 10 kontrol-puntu / mmm 10 kontrol-puntu.
- Geo-posizionamendurako sistema. (***)
- 200 ibilgailurentzako edukiera duen doako aparkalekua helmugatik gertu. Iritsiera ordenean beteko da. Betetzen diren kasuan, erreserbatu gabeko beste bi aparkaleku egongo dira.
- 40 autokarabanentzako edukiera duen doako aparkalekua

(***) ez dira maratoian aplikatuko

7. artikulua: **MEDIKU ETA GAITASUN TXOSTENA**

Hiru lasterketetako batean izen-ematea ontzat emateko, ezinbestekoa izango da antolakuntzak emandako mediku-txostena (www.ehunmilak.com deskargatu eta atseden-egoeran egindako 12 deribaziotako elektrokardiograma korrikalariak antolakuntzari helaraztea. Bi dokumentu horiek antolakuntzaren webgunean berariaz ezarritako estekaren bitartez igo edo e-mailez (doc@ehunmilak.com) bidali beharko dira.

Derrigorrezkoa izango da proba egin baino urtebete lehenagoko iraunaldia duen mediku-txostena eta elektrokardiograma aurkeztea. Bi dokumentuak mediku batek sinatua eta zigilatua egon beharko dute. Bertan jarriko ditu izen-abizenak eta elkargokide zenbakia.

Antolatzaileek emandako mediku-txostenaren ereduaz gain, Euskal Mendizale Federazioaren txosten-eredua ere onartuko da, elektrokardiograma baliodun batekin batera. Beti ere bi dokumentuak probaren hasiera-data baino urtebete lehenagokoak izango dira, eta mediku batek sinatu eta zigilatu beharko ditu, izena eta elkargokide-zenbakia adieraziz.

Mediko dokumentazioa manipulatuz gero, lasterketako inskripziotik kanporatuko da korrikalaria, eta ez da izen-emate kostuaren diru-itzulketarik egingo.

Bi dokumentuak entregatzeko epea izena emandako datak baldintzatuta egongo da. Ondoren agertzen den taulan agertzen den moduan. Dagokion epean aurkeztu ezean izen-ematea automatikoki baliogabetuko da, eta ez da izen-emate kostuaren diru-itzulketarik egingo.

Izen-emate data	**Mediku-txostena eta elektrokardiograma entregatzeko epe muga**
2023/11/09 --- 2024/02/22	2024/02/22
2024/02/23 --- 2024/04/25	2024/04/25
2024/06/26 --- 2024/06/13	2024/06/13

OHARRA. Izen ematea itxi aurreko astean antolakuntzaren deia jaso ondoren, itxaron zerrendatik izena ematen duten korrikalariek dokumentuak entregatzeko (mediku-txostena eta elektrokardiograma) astebete gehiago edukiko dute.

8. artikulua: **IZEN-EMATE PREZIOA**

Izen-emate data	**ehunmilak**	**g2h**	**mmm**
2023/11/09 --- 2024/02/22	151 €	95 €	47 €
2024/02/23 --- 2024/04/25	166 €	110 €	52 €
2024/04/26 --- 2024/06/13	186 €		

9. artikulua: **IZEN-EMATE BALIOGABETZEAREN BERMEA**

Pertsona oro, izen-ematea egiten duen unean, baliogabetze berme batera harpidetu ahal izango da, horretarako pertsonako 10 euro ordainduz. Zenbateko hori izen-ematearen kostuari gehituko zaio. Asegurua inskripzioa egiten den unean kontratatu beharko da, bai zuzenean bai itxaron-zerrendan, eta aukera hori ezingo da aldatu inskripzioa egin ondoren.

Bermeak izen-emateak eragindako gastuaren diru-itzulketarako aukera ematen du. Izen-emate data itxi ondoren, EZ da inongo diru itzulketarik egingo edozein dela arrazoia ere.

Izen-ematea baliogabetzean gauzatuko da, horretarako kasu hauek gertatu behar direlarik:

- Korrikalariaren istripu, gaixotasun larri edo heriotza.
- Senar/emazte, lagun edo lehen mailako familia lotura duen norbait larri gaixotuta ospitalizatzea edo hiltzea.

Korrikalariaren istripu edo gaixotasun larri baten kasuan, beharrezkoa da proba ez egitea aholkatzen duen mediku-txostena aurkeztea. Ziurtagiria mediku batek sinatu eta zigilatu beharko du, bere izena eta elkargokide-zenbakia adieraziz. Txosten hori, e-mail bidez (inskripzioak@ehunmilak.com) helbidera bidali beharko dira..

Kalte-ordainketa baldintzak: diru-itzulketa eskaera guztiak dagokien osasun-txostenarekin aurkeztu behar dira, eta beranduenera ere, 2024ko ekainaren 13rako.

10. artikulua: IZEN-EMATEAREN BALIOGABETZEA

Izen-emate ororen baliogabetzea e-posta (inskripzioak@ehunmilak.com) bidez egin behar da.

Baliogabetzea 9. artikuluan deskribatutako arrazoiren bategatik egin bada, eta izen-emate unean harpidetu bada, korrikalariak izen-emate baliogabetzearen bermea erabili ahal izango du, antolakuntzari baliogabetzea eta hori egiaztatzen duen txostena helaraziz. Kasu horretan, korrikalariari izen-ematearen kostu guztia itzuliko zaio, baina ez izen-emate baliogabetzearen 10 euroko bermea.

Izena emandako korrikalari batek berme hori aukeratu ez badu, edo kontratatuta izan arren, 9. artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen ez baditu, diru-itzulketaren zenbatekoa taula honen arabera egingo da. Kasu honetan, ez da beharrezkoa izango mediku-txostena entregatzea.

Bidaltze data	**Itzuli beharreko zenbatekoa** (% izen-ematearen zenbatekoaren arabera)
2023/11/09 --- 2024/02/22	%60
2024/02/23 --- 2024/04/25	%50
2024/04/26 --- 2024/06/13	%40

2024ko ekainaren 14ko 00:00tik aurrera EZ da diru-itzulketarik egingo.

Diru-itzulketak transferentzia bidez edo kreditu-txartelera ordainduz egingo dira.

11. artikulua: MAILAK

- Gizonezkoen orokorra
- Emakumezkoen orokorra
- Taldekakoa (ehunmilak)

Taldeak hiru partaidez osatuak egongo dira, eta sexua ez da kontuan hartuko

12. artikulua: TALDEKAKO PARTAIDETZA (ehunmilak)

Taldeak hiru partaidez osatuak egongo dira, sexu-bereizketarik gabe, eta ibilbidea batera egin beharko dute. Helmuga eta tarteko kontrol-guneetatik batera pasatu beharko dute.

13. artikulua: SAILKAPENAK

Probaren sailkapenak mailaka egingo dira eta sailkapen orokor bat egongo da.

Taldekako parte-hartzean aritu eta taldeko kideren batek proba bertan behera uzten badu, haren taldekideak bakarkako sailkapen orokorrera pasatuko dira, baina ez dira, ezein kasutan, sariak lortzeko hautagai izango. Lasterkari hauek dagozkien eran identifikatuko dira bakarkako sailkapen orokorrean. Era berean, taldeka parte hartu eta gisa horretan proba bukatzen duten lasterkariak ez dute izango bakarkako sailkapenetara bideratutako sarietarako hautagai izateko modurik.

Behin-behineko sailkapenak partaide eta jarraitzaileen eskura egongo dira lasterketak irauten duen bitartean. Antolakuntzak horretarako gune bat atonduko du ahal den heinean korrikalariaren kontrol-puntu ezberdinetako denborak eta kokapena denbora errealean emateko.

Hiru lasterketako behin behineko emaitzak web orrian agertuko dira lasterketa amaitu eta hurrengo egunean.

14. artikulua: ERREKLAMAZIOAK

Erreklamazioak idatziz bakarrik aurkeztu ahal izango zaizkio antolakuntzari. Erreklamazioak egiteko epea behin-behineko sailkapenak lasterketaren web ofizialean argitaratu eta hurrengo 24 ordutan izango da. Erreklamazio horiek eztabaidatu eta jakinaraziko dira lasterketa amaitu eta gehienez bi hilabeteko epean.

15. artikulua: SARIAK

Antolakuntzak ezarri duen denbora mugaren barruan proba amaitzea lortu duten guztiei, lasterketako denbora, lortutako postua eta kontrol-gune bakoitzeko denbora partziala jasotzen dituen diploma bat bidaliko zaie izen-ematea egiterakoan zehaztu duten posta elektronikora.

Horrez gain, antolakuntzak ezarritako ordutegien barruan lasterketa amaitzen duten korrikalariei *finisher* oparia oparituko zaie. Jantzi bat bada, ezin izango da aldatu inskripzioa egindako unean aukeratutako neurria

Sailkapenen arabera, sariak honako hauek izango dira:

ehunmilak

- **Lehenbizi sailkatutako gizonezkoari**: 1000 € + txapela + garaikurra
- **Bigarren sailkatutako gizonezkoari**: 600 € + garaikurra
- **Hirugarren sailkatutako gizonezkoari**: 400 € + garaikurra

- **Lehenbizi sailkatutako emakumezkoari**: 1000 € + txapela + garaikurra
- **Bigarren sailkatutako emakumezkoari**: 600 € + garaikurra
- **Hirugarren sailkatutako emakumezkoari**: 400 € + garaikurra

- **Lehenbizi sailkatutako taldeari**: 1000 € + 3 txapel + 3 garaikur
- **Bigarren sailkatutako taldeari**: 600 € + 3 garaikur
- **Hirugarren sailkatutako taldeari**: 400 € + 3 garaikur

g2h

- **Lehenbizi sailkatutako gizonezkoari**: 500 € + txapela + garaikurra
- **Bigarren sailkatutako gizonezkoari**: 300 € + garaikurra
- **Hirugarren sailkatutako gizonezkoari**: 200 € + garaikurra

- **Lehenbizi sailkatutako emakumezkoari**: 500 € + txapela + garaikurra
- **Bigarren sailkatutako emakumezkoari**: 300 € + garaikurra
- **Hirugarren sailkatutako emakumezkoari**: 200 € + garaikurra

mmm

- **Lehenbizi sailkatutako gizonezkoari**: 250 €+ txapela + garaikurra
- **Bigarren sailkatutako gizonezkoari**: 150 €+ garaikurra
- **Hirugarren sailkatutako gizonezkoari**: 100 €+ garaikurra

- **Lehenbizi sailkatutako emakumezkoari**: 250 €+ txapela + garaikurra
- **Bigarren sailkatutako emakumezkoari**: 150 €+ garaikurra
- **Hirugarren sailkatutako emakumezkoari**: 100 €+ garaikurra

Antolakuntzak aurreikusitako orduan ezinbestekoa izango da kategoria ezberdinetan podiuma osatzen duten korrikalariak sari-banaketan egotea. Horrela ez balitz, antolakuntzaren baimenarekin izan ezean, korrikalaria saririk gabe geldituko litzateke.

16. artikulua: ROAD BOOK

Ibilbidearen mapak, probaren profilak eta nahitaez egin beharreko igarotze-kontrolei buruzko informazioa lasterketa liburuan (Road Book) emango dira. Parte hartzaile bakoitzak formatu digitalean deskargatu ahal izango du www.ehunmilak.com web-orritik, proba egin baino aste batzuk lehenago.

Eskuliburu horretan, lasterketari buruzko informazio baliagarria aurkitu ahal izango da: igarotze-kontroletako mugak, anoa-postuak, osasun zerbitzua, laguntzaileentzako azalpenak eta abar.

17. artikulua: IGAROTZE-KONTROLAK

Partaideek derrigor pasatu beharko dute igarotze-kontroletatik, antolakuntzak emandako txip baten bidez bere igarotzea ziurtatu beharko du. Igarotze-kontrolak erraz ikusteko moduan adierazirik egongo dira. Igarotze-kontrol guztietatik pasatzea ezinbestekoa da, eta berauetatik pasatzen ez dena kanporatua izango da (29. artikulua). Partaideek kontroletik igarotzean erregistroa errazteko ardura dute.

Igarotze-kontroletan lasterketaren segurtasuna bermatuko duen antolakuntzako kideak egongo dira.

Kontrol-gune "ibiltariak" anoa postu eta jakinarazitako kontrol-guneetatik kanpo jarriko dira. Beren kokapena ez da jakinaraziko.

18. artikulua: ANOA-GUNEAK

Ibilbidean zehar,(ehm eta g2h) hiru anoa-gune mota aurkitu ahal izango dira:

- **Likidoa**: ura, freskagarriak, kirol edariak.
- **Arrunta**: aurreko guztiaz gain, laranja, platanoa, sagarra, sandia, meloia, tomatea, fruitu lehorrak, gazta, urdaiazpiko egosia eta gazta sandwichak, urdaiazpikoa, irasagarra, olibak, salamia, salda, txokolatea, pastak, patata frijituak, kafea.
- **Osoa**: aurreko guztiaz gain, arroza, makarroiak eta arrautzopila.

Maratoian postu mistoak izango ditugu gune guztietan

- **Mistoa:** ura, freskagarriak, kirol edariak, laranja, platanoa, fruitu lehorrak, txokolatea, pastak, irasagarra eta urdaiazpiko egosia eta gazta sandwichak.

Korrikalarien errespetua dela eta, debekatuta dago botilen muturretik ura edatea.

Korrikalari bakoitzari (ehm/g2h), dortsalarekin batera, bere zabor eta hondakinak jasotzeko poltsa txiki bat banatuko zaio. Poltsaren erabilera egokia egiten ez duen oro, zigortua izango da.

Derrigor seinaleztatutako bidea jarraitu behar da, moztu gabe, bidea mozteak ingurumenaren higadura eta degradazioa eragin baititzake.

Anoa postu bakoitzean hainbat zakarrontzi egongo dira hondakinak gaika sailkatzeko eta ezinbestekoa izango da horiek erabiltzea.

19. artikulua: SEGURTASUNA

Antolakuntzak ibilbidearen puntu jakin batzuetan eta igarotze-kontroletan partaideen osasun-zaintzarako pertsonal espezializatua jarriko du. Ezinbestekoa da behar bezala identifikatutako pertsonal honen azalpenak jarraitzea.

Proba bertan behera uztean, gertuen dagoen igarotze-puntuko antolakuntzako edo Beasaingo koordinazio guneko kideei ahalik eta lasterren jakinarazi beharko zaie. Beraiek txipa kentzeaz arduratuko dira, dortsala korrikalariak mantenduz.

Antolakuntzak sorospen eta salbamendu-zerbitzuak atonduko ditu ibilbideko puntu estrategikoenetan. Lasterketa aurreko egunetan, probaren ibilbide eta profilarekin, igaro beharrekoak diren kontrol-gune eta sorospen-zerbitzuekin mapa bat emango da (Road Book).

Lasterketa ixteko ardura duen erratz-taldeak partaide guztien igarotzea egiaztatuko du.

Lasterketa honen ibilbidearen ingurunea eta osasun zaintza dagoen distantzia eta desnibela kontutan hartuta, osasun zaintza horrek esperotakoa baino denbora gehiago pasa dezake. Norberaren segurtasuna motxilan daraman materialaren araberakoa izango da.

Izen-ematea ontzat emateko ezinbestekoa izango da araudia onartzea eta antolakuntza lasterketan edo ondoren korrikalariari gerta diezazkiokeen istripu edo kalteez salbuestea. Nahiz eta, antolakuntzak horiek ekiditeko lan egingo duen. Aitortza hori dortsala erretiratzean egingo da.

Eguraldi txarrak hala behartuz gero, ordezko ibilbide bat egongo da. Horren berri,korrikalariari emango zaio ahalik eta azkarren. Ibilbide aldaketaren erabakia irteera eman ondoren hartuko balitz, erabaki horren berri antolakuntzak egokien ikusten duen kontrol-gune batean emango zaie partaideei.

Antolakuntzak ehm / g2h / mmm-ren oinarriak aldatzeko eta ustekabeko arrazoi garrantzitsuren bategatik edo korrikalarien/boluntarioen osasuna/segurtasuna bermatzeko arazoak ikusten dituenean proba bertan behera uzteko eskubidea izango du.

Justifikatutako arrazoiengatik, lasterketak bertan behera uzteko erabakia hartzen denean, izen-ematean egindako ordainketaren itzulera egiteko beheko taula hartuko da oinarri moduan. Itzulera horren zenbatekoa antolakuntzak aurre egin ezin dion (bere gain hartu ezin duen) gastuaren araberakoa izango da.

Lasterketa bertan behar uzteko erabakia irteera-datarako hilabete bat edo gutxiago falta direla hartzen den kasuan, edo lasterketa behin irten ondoren bertan behera gelditzen denean, ez da diru itzulerarik kontenplatzen.

Hala ere, behin lasterketa abiatu ondoren, antolakuntzak lasterketa bertan behera uzten duenean, lasterketan zeuden korrikalari guztiei *finisher* oparia emango zaie.

Bertan behera uzteko erabakia	**Itzuli beharreko zenbatekoa (% izen-ematearen zenbatekoaren arabera)**
2023/11/09 --- 2024/03/01	%100
2024/03/02 --- 2024/05/01	%60 (+ Ternua lasterketa oroigarria)*
2024/05/02 --- 2024/06/13	%40 (+ Ternua lasterketa oroigarria)*
2024/06/14 --- 2024/07/12	Ternua lasterketa oroigarria *

*Ternua lasterketa oroigarriaren bidalketa gastuak (bidalketa ziurtatua) korrikalariaren kontu izango dira

20. artikulua: **GEOPOSIZIONAMENDUA**

ehunmilakeko eta goierriko2haundiak lasterketetako korrikalariek geoposizionamendurako GPS irrati-baliza bat eramango dute aldean momentu oro. GPS irrati-baliza honen helburua bikoitza da: alde batetik, antolakuntzak probako parte-hartzaile guztien posizioa jakin izango du une oro, lasterketaren kudeaketa hobea egitea ahalbidetuz. Horrela, parte-hartzaileen segurtasuna bermatze aldera, beste neurri bat edukiko du eskura. Eta beste alde batetik, ikusleei zabalduko zaien webgunearen bitartez, hauek lasterketaren egoeraren eta lasterkarien posizioaren berri jakin ahal izango dute denbora errealean.

ehunmilakeko ibilbide arduradunek egindako probetan ikusi ahal izan denez, ehunmilak eta g2hren ibilbidean estaldurarik gabeko zenbait tarte daude, korrikalariari mapa batean zehaztuko zaizkionak. GPS irrati-balizak estaldurarik ez badauka, ezin du informaziorik igorri. Alegia, berezitasun geografikoak medio, eremu jakinetan ezingo da korrikalariaren kokalekuaren berri izan. Korrikalaria eremu horretan noiz sartu zen jakin ahal izango da (GPSaren eguneratze maiztasuna kontutan izanda), eta baita noiz ateratzen den ere. Gailua berriz ere estaldura eremura irtetean posizio eguneratuaren berri izango da. Gainera, GPS irrati-balizan gordetako estaldurarik gabeko tartean zegoeneko posizioak igorri egingo dira, eta ibilbidea atzigai egongo da.

GPS balizak

GPSa motxilaren goialdean edota azalean eraman behar da. Ahal dela, bateriaren partea motxilarantz begira dagoela eta komunikazio antena zerura begira dagoela.

Lasterkariak GPS irrati-baliza hau eramatea derrigortuta daude (29. artikulua). GPS balizak material garestia dira. Ondorioz, lasterkariak materiala zaintzeko ardura hartzen dute berau banatzen zaien unetik eta helmugaratzen diren edo lasterketa bertan behera uzten duten arte.

Bateriak, printzipioz, ez dira aldatu beharko lasterketak irauten duen bitartean. Hala ere, antolakuntzak ordezkapeneko dispositibo sorta bat gordeko du badaezpada.

Edozein arazorengatik, GPS irrati balizak bere lana egiteari utziko balio, gertuen dagoen kontrol puntuan irrati baliza aldatuko litzaioke. Edozein kasutan, kontrol puntu gertuenean aldatzeko irrati balizarik ez balego, antolakuntzak ahalegin guztiak egingo ditu korrikalariari lehenbailehen irrati baliza ibilbideko edozein puntutan aldatzeko, baina korrikalaria ez da etengo irrati-balizarik ez balego momentu horretan.

Funtzionamendua

Irteera eman aurretik, lasterkari orok bere baliza martxan duela ziurtatzeko dagokion kontrola egingo da irteera-gunera sartu aurretik. Arazorik egotekotan, lasterkaria bozgorailuetatik deitu eta irteera puntuan dagoen standean baliza aldatu egingo zaio.

Behin martxan jarrita, balizak ez du inongo arreta bereziren beharrik izango. Dauzkan botoiak desgaituta izango ditu (itzali/piztekoa izan ezik). Antolakuntzak momenturen batean lasterkariren baten seinalea denbora tarte jakin batez galduko balu, lasterkariari izen-ematean eman duen telefonora hots egin eta baliza piztuta dagoen ziurtatuko du. Edozein arrazoirengatik itzali egin bada, pizteko eskatuko dio horretarako beharrezko argibideak emanez.

Webgunea

Lasterkarien posizioa une oro zein den jakiteko ehunmilaken webgunean atal berezi bat irekiko da lasterketaren bezperetan, nahiz eta lasterketa egunean soilik hasiko den martxan.

Webguneak ondoko ezaugarriak izango ditu:

- Mapa bat eta lasterkari bakoitzari buruzko informazioa eskainiko ditu: Maparen azpialdean ibilbidearen profila egongo da. Lasterkari bat profilaren zein puntutan dagoen ere jakin ahal izango da.
- ehunmilaken jatorrizko ibilbidea ikusi ahal izango da.
- Lasterkariak egungo posiziora arte egindako ibilbidea ikusi ahal izango da.

Antolakuntzaren ohar bereziak

Antolakuntzak lasterkarien segurtasuna areagotzeko dagozkion egokitzapenak izango dituen webgunearen aldaera baten bitartez jarraituko ditu hauek.

Webgune honen bitartez ezingo da antolakuntzarekin harremanetan jarri.Antolakuntzak eskura izango duen aldaeran lasterkariei buruzko informazioa baino ez dago eskuragai. Informazio hori jendearentzako eskuragai dagoena baino osoagoa izan daiteke, beti ere lasterkariaren segurtasuna bermatu aldera. Informazio gehigarri hori ez da zabalduko egoerak hala eskatzen ez badu (eguraldi baldintzak, istripu kasuak, etab.). Kasu horretan, beti ere, lasterketan segurtasuna bermatzen duten erakundeekin adostutako protokoloa jarriko da martxan.

Antolakuntzak ez du ezein lasterkariri buruzko inongo informazio gehigarririk eskainiko, goian aipatutako salbuespeneko kasuren bat ez bada.

21. artikulua: **ORDUTEGI MUGAK**

ehunmilak lasterketako ibilbide osoa egiteko gehienezko denbora 48 ordukoa izango da. g2hrako, 22 ordukoa eta mmmrako 8 ordukoa

Tauletan agertzen diren gehienezko denborak, korrikalariak lasterketan daraman denborak dira.

Ordutegi hauek, lasterketa baimendutako ordutegi mugen barnean amaitzeko kalkulatuta daude, betiere kontuan hartuta egin daitezkeen geldialdiak (atsedena, jatorduak…). Korrikalari batek, lasterketan jarraitzeko baimena izan dezan, kontrol-gunera ezarritako gehienezko denbora baino lehenago irten beharko du (sarrerako denbora edozein delarik ere). Ezarritako ordutegi muga hori gainditzen duen oro, lasterketatik kanpo geldituko da. Aurrera jarraitu nahi izanez gero ezinbestekoa izango da txipa desaktibatzea. Hortik aurrerako guztia bere kasa eta bere ardurapean egingo du.

Tauletan adierazitako denbora-mugak alde batera utzita, garrantzitsua da adieraztea lasterketa ixten duten korrikalariak aurreratuta badoaz, lasterketako kontrol/hornidura postua erratz taldea bertatik irteten den momentuan itxiko dela.

Eguraldi baldintza txarren kasuan edo segurtasun arrazoiengatik, antolakuntzak proba gelditzeko, ibilbidea aldatzeko edo ordutegi mugak aldatzeko eskubide osoa izango du.

Ezarritako ordutegi mugen aldaketa emanez gero, ordutegi muga berri horietara iritsi ezin daitezken korrikalari guztiak lasterketaz/kontrolez kanpo geldituko dira.

ehunmilak		
Zumarraga/Urretxu	km 21	4h 25’
Azpeitia	km 55,5	13h 45’
Tolosa	km 79,5	20h
Amezketa	km 98	24h
Txindoki	km 104	26h50’
Lizarrusti	km 116	30h 50’
Etzegarate	km 130	34h 50’
San Adrian	km 140	38h
Oazurtza	km 150	42h
Beasain	km 171	48h

g2h		
Zaldibia	km 7	1h 25’
Txindoki	km 23	5h
Lizarrusti	km 35	8h 30’
Etzegarate	km 49	12h 15’
San Adrian	km 59	14h 40’
Oazurtza	km 69	17h 30’
Beasain	km 90	22h
mmm		
Atxurtza	km 18	3h 20’
Arriaran	km 32	6h
Beasain	km 42	8h

22. artikulua: PROBA BERTAN BEHERA UTZI ETA BEASAINERAKO ITZULERA

Lesio edo istripuren batengatik ez bada, korrikalariak ez luke proba bertan behera utzi behar kontrol-guneetatik kanpo. Proba bertan behera kontrol gunea baino lehen uztea erabaki duenak, hurrengo kontrol-guneraino joan beharko du eta han antolakuntzakoei jakinarazi, hauek txipa desaktibatu diezaioten. Kontrol-gune baten aurretik proba bertan behera utziz gero, buelta eman eta proba ixteaz arduratzen diren erratz taldearekin aurkitutakoan, horiek txipa desaktibatuko diote. Momentu horretan korrikalaria lasterketatik kanpo geratuko da eta bere itzuleraren kargu egin beharko da.

Korrikalariak dortsala gordeko du antolakuntzak eskaintzen dituen zerbitzuei (autobusak, dutxak, helmugako anoa-gunea, …) etekina ateratzeko.

Lasterketa derrigor bertan behera uztea. Antolakuntzak aldi baterako gelditzea edo lasterketa bertan behera uztea behar dezake korrikalaria bere egoerak bere osasun fisikoa edo segurtasuna arriskuan jartzen baditu.

Osasun-zerbitzura zuzentzen den korrikalariak beraien juzkuaren eta balorazioaren esku geratzen dira. Ondorioz beraien erabakiak onartu beharko dituzte.

Osasun-zerbitzuak edozein kasutan erabaki hauek hartu ahal izango dituzte:

- Lasterketa jarraitzeko gai ez den edozein korrikalari kanporatzea.
- Arriskuan ikusten duten edozein korrikalari ebakuatu egokien iruditzen zaien baliabidearen bitartez.
- Edozein korrikalari zentro medikutara eraman bere egoerak egokiena dela erakusten badu.

Osasun-zentro batera eramanez gero, korrikalaria arduratuko da itzuleraz.

Istripu edo lesioagatik oinez kontrol guneetara iristea ezinezkoa bada eta ebakuazioa beharrezkoa izanez gero, korrikalariak antolakuntzarekin harremanetan jarri beharko du, salbamendu-zerbitzua martxan jartzeko. Korrikalari bakoitzari, kasu hauetan zein telefono zenbakitara deitu behar duen jakinaraziko zaio (dortsalean inprimatuta egongo dira). Korrikalariaren telefono-konpainia estaldura ezagatik zenbaki horiek erabili ezin diren kasuan, doako larrialdietako 112 zenbakia erabiltzea probatu daiteke. Beste korrikalarien errespetua eta elkartasuna erabakigarriak izango dira horrelako kasuetan.

Korrikalariaren itzulera kontrol-guneko arduradunaren eta honako arauen arabera erabakiko da:

- Beasainera itzultzeko garraiobideak Zumarraga, Azpeitia, Tolosa, Lizarrusti, Etzegarate eta Mutiloan egongo dira eskura.

- Anoa gunean edo segurtasun esparruan proba bertan behera uzten duten eta lesionaturik ez dauden korrikalariek goian aipatu puntu horietara joan beharko dute beren kabuz eta ahalik azkarren.

- 4x4 ibilgailuen bidez bakarrik irits daitekeen postuetan, salbamendu-zerbitzua behar ez den kasuetan, kontrol bakoitzeko arduradunak erabakiko du korrikalariaren itzulera unea.

- Muturreko eguraldi baldintzak proba osorik edo tarte batean bertan behera uzteko arrazoia direnean, antolakuntzak geldirik dauden korrikalarien itzulera ziurtatzen du, ahal den denbora tarte laburrenean.

Proba, edozein arrazoi dela medio bertan behera utzi duten eta itzulera puntuetara ez joatea erabaki duten korrikalariak, kontrol-gunetako arduradunei erabakia jakinarazi gabe, ez dira jada antolakuntzaren kontrolpean egongo.

23. artikulua: ATSEDEN-GUNE ETA DUTXAK

Beasain, Tolosa eta Etzegaraten, korrikalari bakoitzak atseden hartzeko gunea izango du eskura (aldi berean 30 pertsonako gehiengo edukiera). Gune honetan, hamaka eta mantak izango ditu.

Beasaingo gunea, lasterketan jarraitzen duten korrikalariek edo lasterketa amaitu duten korrikalariek atseden hartzeko da. Inolaz ere ezingo da erabili bertan gaua igarotzeko. Lasterketa larunbatean amaitu eta beren egonaldia igandera arte luzatu nahi duten korrikalariek beren kabuz hartu beharko dute ostatua.

Korrikalariek Tolosa, Etzegarate eta Beasainen dutxa beroak izango dituzte; Lizarrustin mediku aginduz bakarrik.

Atseden-gune eta dutxetara oinutsik sartu behar da (sarreran oinetakoak sartzeko poltsak banatuko dira)

24. artikulua: DORTSALAK

Dortsal bakoitza, neurtzeko sistemarekin batera, bakarka banatuko zaio korrikalari bakoitzari. Horretarako, indarrean dagoen, argazkia daukan eta bere nortasuna erakusten duen dokumentu ofizial bat aurkeztu beharko du (Formatu digitalean ere balio du). Ezingo da dortsala erretiratu derrigorrezko materiala aurkeztu gabe. Behin derrigorrezko materialaren kontrola pasa ondoren, korrikalari bakoitzak ohorezko konpromiso bat sinatu beharko du,antolakuntzak lasterketa guztian zehar, gordeko duena.

Partaideek uneoro antolakuntzak emandako dortsala eraman beharko dute. Dortsala bular edo sabel aldean eraman behar da, erraz ikusteko moduan eta probak irauten duen denbora guztian. Dortsalak ezin dira tolestu, estali edo aldatu.

Dortsala irteera, anoa postu, atseden-gune eta abarretara sartzeko ezinbesteko baimena da. Horrexegatik, ez da inoiz erretiratuko.

25. artikulua: KORRIKALARIENTZAKO POLTSAK

Dortsalarekin batera, ehunmilak lasterketako korrikalariek nahi izanez gero erabili ahalko dituzten 2 poltsa banatuko dira. Korrikalariek, poltsa horietan sartutako materiala, antolakuntzak ezarritako puntu horietan bakarrik erabili ahal izango dute. Puntu horietara iristean, korrikalariak aukera izango du poltsa horiek jasotzea. Kontrola itxitakoan, poltsak Beasainera ekarriko dira.

g2h lasterketan parte hartuko dutenek, dortsalen jasotzea eta materialaren poltsa uztea, aurretik adostutako ordutegietan egingo dute. Proba honetan, korrikalariei poltsa bakarra banatuko zaie.

mmm lasterketan kasuan, korrikalariek ez dute ibilbidean zehar, materialaren poltsa uzteko aukerarik izango.

<u>Beasainen poltsak nola jaso</u>.Poltsak helmugaren inguruan prestatutako gunean jaso ahal izango dira. Korrikalariak jasotzen baditu, dortsala edo nortasun agiria aurkeztu beharko du. Korrikalariaren ordezkari batek jasotzen baditu, ordezkariak bere nortasun-agiria aurkeztu beharko du. Horrekin batera, zerbitzu horretaz arduratzen den boluntarioak helaraziko dion dokumentua bete beharko du. Jasotzeko epea igande arratsaldeko 19etan amaituko da. Hortik aurrera, korrikalariak antolakuntzarengana jo beharko du.

Poltsak erretiratzeko ordutegiak:

- ehunmilak poltsa Tolosa: Larunbateko arratsaldeko 17etatik,igande arratsaldeko 19etara.
- ehunmilak poltsa Etzegarate: Igandeko goizeko 10etatik, igande arratsaldeko 19etara.
- g2h poltsa Etzegarate: larunbata, arratsaldeko 17etatik, igande arratsaldeko 19etara.

<u>Poltsak jasotzea ibilbideko puntu ezberdinetan</u>. Beasaingo guneaz gain, kontrolak irauten duen bitartean, ibilbideko puntuetan ere jaso ahal izango dira

poltsak (Tolosa, Etzegarate). Korrikalariak jasotzen baditu, dortsala edo nortasun agiria aurkeztu beharko du. Korrikalariaren ordezkari batek jasotzen baditu, ordezkariak bere nortasun-agiria aurkeztu beharko du. Horrekin batera, zerbitzu horretaz arduratzen den boluntarioak helaraziko dion dokumentua bete beharko du.

Antolakuntzak banatutako poltsak bakarrik onartuko dira. Bastoiak ezin dira poltsetan erabili.

Poltsen edukia ez da egiaztatuko, ondorioz, ez da erreklamaziorik onartuko. Baliozko objekturik ez sartzea aholkatzen da.

Poltsa horiez gain, korrikalariak irteera/helmuga gunean lasterketa ondoren dutxatzeko beharko duen materiala utzi ahal izango du. Helmugaratzean material hori polikiroldegian aurkituko du.

26. artikulua: DERRIGORREZKO MATERIALA

Partaide bakoitzak, bere segurtasuna bermatzeko ezinbestekoa izango den materiala eraman beharko du baina horrez gain, ehm eta g2h lasterketetan ezinbestekoa izango da ondorengo materiala ibilbide guztian zehar edukitzea. Maratoiaren kasuan ez da derrigorrez eraman beharreko materialik izango:

- Motxila edo antzekoa
- Litro bateko ahalmena duen ur erreserba (lasterketan)
- Janari erreserba, 500kcal gutxienez (lasterketan)
- Mendian eguraldi txarrari aurre egiteko gai den jaka iragazgaitza kaputxarekin. Jakak ez ditu iragazgaitzak ez diren atalak edukiko, soilik fabrikatzaileak aurreikusitako aireztatzeko guneak (besapeak eta bizkarraldea), eta iragazgaiztasuna nabarmen gutxitzen dutenak ez badira behintzat.
- Lasterketako praka edo elastiko luzeak (belaunetik behera). Edo elastiko eta galtzeri konbinazioa beti ere hanka guztia estaltzen badute.
- 2 kopetako linterna, bakoitza dagokion aldatzeko ordezko energia-jokoarekin. Bi kopetako linternek energia modu berdina erabiltzen badute, nahikoa izango da ordezko joko batekin.
- Biziraupen-manta bat (gutxienez 1,20m x 1,20m)
- Txapela/bisera edo bandana
- Txilibitua
- Benda elastiko itsasgarria, edo benda eta esparatrapua, bendaje bat egin ahal izateko (min. 100 cm x 6 cm)
- Telefono mugikorra (gogoratu bateria kargatzeaz). Mugikorra erabilgarri egon behar da eta antolakuntzak deitutakoan korrikalariak telefonoa hartu behar du lasterketaren aurretik, lasterketan bertan edo lasterketa ondoren.
- Atzealdeko argi gorria (ez da izango derrigorrezkoa lasterketan piztuta eramatea antolakuntzak horrela zehazten ez badu)

Arropa guztiek parte hartzailearen neurrikoak izan behar dute, eta fabrikatik atera ondoren aldaketarik gabekoak. Material guztia dortsalak entregatzean markatuko den motxila batean edo antzekoan garraiatuko da.

Korrikalariaren ardura da araudi honetan zehazten den material guztia eramatea lasterketa osoan. Derrigorrezkoak diren elementuetako bat ez eramateak korrikalariaren bat-bateko kanporatzea eragingo du. Zalantzazko kasuetan, lasterketan kokatutako kontrol batean bertako arduradunak izango du azken hitza.

Material guztiz gomendagarria:

- NAN/pasaportea
- Eskularruak
- Hotz iragarpenei aurre egiteko arropa
- Eguzkitako betaurrekoak
- Eguzkitako krema

Aholkatutako materiala:

- Bastoi teleskopikoak
- Brujula
- Baselina

Korrikalariak bastoiak erabiltzea erabakitzen badu, ezinbestekoa izango da lasterketa guztian eramatea. Poltsetan ez da bastoirik onartuko.

27. artikulua: **IRTEERA KONTROLA**

ehunmilak. Irteera aurretiko kontrola arratsaldeko 17:00etan hasiko da, irteerako eremu itxira sartu ahal izateko. Parte-hartzaile guztiek irteera-kontrolean 17:45erako egon behar dute.

g2h. Irteera aurretiko kontrola gaueko 22:00etan hasiko da, irteerako eremu itxira sartu ahal izateko. Parte-hartzaile guztiek irteera-kontrolean 22:45erako egon behar dute.

mmm. Irteera aurretiko kontrola goizeko 07:15etan hasiko da, irteerako eremu itxira sartu ahal izateko. Parte-hartzaile guztiek irteera-kontrolean 07:45erako egon behar dute.

28. artikulua: **GAUEZKO BALDINTZAK**

Iluntzean ezinbestekoa da aurreko argia piztea. Erabili beharreko kasuan, posizio argiaren gailuak motxilaren atzealdean kokaturik egon behar du irteera unetik. Ilunabarrean piztea gomendatzen da atzean doazen partaideek ikus dezaten.

29. artikulua: SEGURTASUN ARAUAK

Hiru lasterketak distantzia luzeko probak izanik, partaideen segurtasuna bermatzea beste edozeren gainetik gailentzen da.

Lasterketako ibilbidean aurkitzen diren antolatzaileek nahiz kontrol-gune eta anoa postuetako arduradunek, araudia errespetarazteko ahalmena daukate, eta horretarako beheko taula honetan agertzen diren zigorrak aplika ditzakete:

ARAU-HAUSTEA	**ZIGORRA/KANPORATZEA**
Lasterbideak hartzea	2 h
Antolakuntza edo osasun-zaintzako pertsonalaren aginduei jaramonik ez egitea	Berehalako kanporatzea
Derrigorrezkoa den segurtasuneko materialean gabeziaren bat edukitzea (litro bateko ahalmena duen ur erreserba, txaketa iragazgaitza, argirik ez eramatea,manta termikoa, telefono mugikorra) (***)	Berehalako kanporatzea
Beharrezko materialean zerbait falta (pirata/prakak/malla luzeak, argi bakarra, ordezko energia jokoa(k), txapela/bisera edo bandana, txilibitua, benda, janari erreserba, atzealdeko argi gorria) (***)	2 h
Telefonoa itzalita edo hegaldi moduan (***)	1/2 h
Beharrezko materialaren kontrolari uko egitea(***)	Berehalako kanporatzea
Zabor edo hondakinak botatzea	Berehalako kanporatzea
Hondakinak anoa-guneetan edukiontzietatik kanpo uztea	1 h
Ingurumenarekiko arau-hausteak egitea	Berehalako kanporatzea
Parte-hartzaileak pertsonenganako errespetu falta (parte-hartzaileak/antolatzaile)	Berehalako kanporatzea
Korrikalariaren laguntzaileak pertsonenganako errespetu falta (parte-hartzaileak/antolatzaile)	2h
Arazoak dituen pertsonari ez laguntzea, adibidez, laguntza eskatzen duen partaide bati ez laguntzea	Berehalako kanporatzea
Baimendu gabeko kanpoko laguntza	2 h
Lasterketan izena eman gabeko pertsona batez edo animalia batez ibilbidean edota baimendutako guneetatik kanpo lagunduta joatea	2 h
Irteerako kontroletik ez igarotzea	Berehalako kanporatzea
Tranpak egitea (adibidez garraiobide bat erabiltzea, dortsala beste korrikalari bati pasatzea…)	Berehalako kanporatzea
Dortsala modu errazean ikusteko moduan ez eramatea, tolestuta	1 h
Dortsala egoera txarrean eramatea	1/2 h

Irteerako kontrolean, motxila prezinturik gabe	1 h
Jokabide arriskutsuak (Adib: bastoiak babes gabe eta ikusle nahiz beste partaideei zuzenduta eramatea)	1 h
Kontrol-gune batetik ez pasatzea	Berehalako kanporatzea
Beharrik gabe laguntza eskatzea	Berehalako kanporatzea
Doping kontrol bati muzin egitea	Berehalako kanporatzea
Kontrol-gunetik ordutegi muga gaindituta ateratzea	Berehalako kanporatzea
Geo-lokalizaziorako irrati baliza eramateari uko egitea edo nahitako manipulazioa (***)	Berehalako kanporatzea
Ezinbestekoa izango da araudi honetako artikuluak betetzea. Arau-hauste taula honetan agertzen ez den punturen bat ez betetzea.	1h

(***) ikurra duten zigorrak ez dira maratoian aplikatuko.

Kanporatzea ez den zigor oro, helmugako denborari batuko zaio.

Partaide oro dopinaren aurkako kontrol bat pasatzera deitua izan daiteke lasterketak dirauen artean edo helmugara iritsi ostean. Kontrola pasatzeari muzin egin edo kontrolera agertu ezean, kirolaria dopin kasua bailitzan zigortua izango da (EMFko araudia aplikatuko da).

30. artikulua: **IKUSKATZAILEAK**

Lasterketako arduradunek lehiaketatik korrikalari bat kanpora lezakete, baldin korrikalari horrek nekearen ondorioz bere dohain fisiko nahiz psikikoak gutxituta baditu, ez badauka beharrezkoa den materialik edo bere baldintzak lasterketan jarraitzeko egokiak ez badira. Zuzendariek lasterketa bertan behera utzi, moztu, neutralizatu edo geldi dezakete, segurtasunagatik edo beren borondateaz gaindi dagoen beste arrazoiren bategatik (eguraldia…).

Partaideek ezingo diete behin betiko sailkapen, araudi, edo ibilbideari buruzko erreklamaziorik egin antolakuntzako kideei.

31. artikulua: **ARDURAK**

Antolakuntzak ez du, antolakuntzak kontratatuko aseguruaren estalduraz gaindiko, partaide, laguntzaile edo ikusleei gerta dakizkiekeen kalteen (galdu, lapurtu, puskatu…) ondorioz egindako erreklamazioen erantzukizunik bere gain hartuko. Ezta materialen galera., lapurreta eta puskatzearenik ere.

Partaideek, lasterketaren araudiko edozein zati argiago utzi ahal izateko eskatzen zaizkien agiriak sinatu beharko dituzte.

ehm / g2h / mmm probetan izena eman duten guztiek borondatez eta norbere arduraz parte hartzen dutela ulertzen dute. Horregatik, partaideek eta beraien oinordekoek erantzukizun zibilari dagokionez, antolaketaz arduratzen diren

erakundeak, laguntzaileak, babesleak zein beste partaideak, ez salatzea eta kargu horietatik guztietatik libre uzte onartzen dute.

32. artikulua: ALDAKETAK

Behar izanez gero, antolakuntzak edozein unetan araudi hau hobetu, zuzendu edo alda dezake. Izen-ematea egitea partaideak araudi hau eta haren edozein aldaketa bete behar duenaren adierazle da.

33. artikulua: DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Datu pertsonalak babesteko araudiak ezarritakoa betez, zehazki esanda Datuak Babesteko Araudi Orokorrak ezarritakoa betez, jakinarazten dizugu izena emateko inprimakia beteta ematen dizkiguzun datuak Beasaingo Arrastaka Mendi Kirol Taldeak (aurrerantzean "erakundea") tratatuko dituela kirol-proben antolaketa, parte-hartzaileen izen-ematea, dortsalak entregatzea, parte-hartzaileentzako aseguruak, egindako markak komunikabideetan argitaratzea eta fakturazioa kudeatzeko, eta kirol-ekitaldi bat kudeatzearekin eta antolatzearekin lotutako xedeetarako; baita komunikazio komertziala bidaltzeko ere, baldin eta aurrez, horretarako onespena eman badiguzu. Bidalketak ohiko bideetatik edo bide elektronikoetatik egin ahal izango dira. Komunikazio komertzialak jasotzeari ezetz esan diezaiokezu eta horrek ez ditu gure harremanak baldintzatuko.

Jakinarazten dizugu, aipatutako kudeaketa horiek egiteko beharrezkoa dela zure datuak lankide ditugun banku-erakundeei, erakunde publikoei eta erakunde aseguratzaileei lagatzea hala dagokionean ("beharrezko datuak lagatzea" atalean adierazitako moduan); baita probaren babesleei ere, erakundeak edo hirugarrenek antolatutako kirol-ekitaldiekin lotutako informazioa eta kirol-probaren antolatzaileek edo babesleek eskainitako produktuei edo zerbitzuei buruzko informazioa bidaltzeko, baldin eta dagokion laukia markatuta horretarako onespena eman badiguzu.

Datuen tratamendu horiek beharrezkoak dira jarduera ondo antolatzeko eta bi aldeek dituzten interes legitimoak betetzeko. Izena ematean berariaz adierazitako onespenak ere ematen dio legitimazio hori. Hala ere, jakinarazten dizugu ezetz esan ahal izango diozula zure datu pertsonalak kirol-proba kudeatzeari lotuta ezinbestekoak ez diren xedeetarako tratatuak izateari, eta erakundera jo beharko duzula horretarako.

Zure datuak gorde egingo dira aplikagarria den legeriak ezarritako epeetan, harremanak irauten duen bitartean eta datuen tratamenduarekin lotuta sor daitezkeen ekintza posibleen aurrean erantzuna emateko beharrezkoa den denboran. Komunikazio komertzialak bidaltzeko baimena ematen badiguzu, datu pertsonal horiek gorde egingo ditugu horien tratamenduari aurka egin ezean.

Era berean, jakinarazten dizugu zure geolokalizazioa kirol-ekitaldiak irauten duen bitartean bakarrik jasoko dugula, Araudi honen 20. artikuluan adierazitako moduan; hau da, erakundeak parte hartzaileen segurtasuna bermatzeko eta

lasterkarien kokapen geografikoa denbora errealean jakiteko xedearekin. Datuen tratamendu hori beharrezkoa da interesdunaren oinarrizko interesak babesteko eta bi aldeen interes legitimoak asetzeko. Datuak segurtasuna bermatzeko eta marken akreditazioa egiteko behar den denboran bakarrik gordeko ditugu.

Izena emateko garaian dagokion laukian marka eginda baimena ematen badiguzu, zure geolokalizazioa denbora errealean eta zure sailkapena online (bi kasu horietan, dortsal-zenbakia eta izen-abizenak barne) argitaratuko dira jendearentzat egokitutako webgunean (www.ehunmilak.com) Lasterketako Araudi honetako 20. artikuluan ezarritako baldintzen arabera. Baimen hori emango ez bazenu, webguneko geolokalizazioko aplikazioan dortsal-zenbakia bakarrik argitaratuko da, eta onlineko sailkapenean izen-abizenak, bi informazio horiek inola ere erlazionatu gabe. Tratamendu horri edozein unetan aurka egiteko eskubidea duzu (webgunean zehaztuta dago argitalpena) eta horrek ez du alderdien arteko harremana baldintzatuko. Era berean, harremanak irauten duen eta aipatutako baldintzen arabera datu horien tratamenduari aurka egiten ez diezun bitartean datu horiek gorde egingo direla jakinarazten dizugu.

Jakinarazten dizugu kirol-ekitaldian argazkiak eta ikus-entzunezko irudiak hartuko ditugula ekitaldia erakundearen webgunean argitaratzeko eta prentsari bidaltzeko. Hala, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideen babes zibilari buruzko 1982ko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa eta datu pertsonalak babesteari lotuta indarrean den araudian ezarritakoa betez, parte-hartzaileak erakundeari baimena ematen dio material horiek hari egoki iruditutako komunikaziorako euskarrietan eta komunikabideetan (webgunea, aldizkariak, bideoak, komunikabideak, memoriak, kartelak, etab.) sartzeko, kirol-ekitaldiaren hedapena egiteko xedearekin. Beasaingo Arrastaka Mendi Kirol Taldeak ezingo ditu irudi horiek beste xede batzuetarako erabili. Datuen tratamendu horiek dokumentu hau onartuta zuk ematen duzun onespenak legitimatzen ditu. Jakinarazten dizugu zure datuak onespen hori bertan behera uzten duzun arte gordeko ditugula.

INTERESDUNAREN DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEAK

Datuetara sartzeko, haiek zuzentzeko, ezeztatzeko, aurka egiteko, banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubidea, garraiatzeko eta haien tratamendua mugatzeko eskubideak baliatzeko, jo hona: info@ehunmilak.com edo Antzizar kiroldegia, Igartza Oleta 3, 20200 Beasain, Gipuzkoa, eta eraman NANaren kopia nor zaren egiaztatzeko. Edozein unetan duzu Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren (AEPD) aurrean erreklamazio bat jartzeko eskubidea.

DATU LAGATZE BEHARREZKOAK

Parte-hartzaileak erakundeari baimena ematen dio haren izena, abizenak, jatorria, kategoria, dortsala, argazkiak, proban hartutako irudiak eta probako emaitza komunikabideetan argitaratzeko, artikulu honetan adierazitakoa betez. Probetako parte-hartzaileen zerrenda eta haien datuak edonork kontsultatu ahal

izango ditu kirol-ekitaldiaren antolatzaileen webgunean, izena eman eta Araudi hau onartzen denetik aurrera.

Probetan egindako markak egiaztatzeko xedearekin, probetako sailkapenak gorde egingo dira interesduna tratamendu horren aurka azaltzen den arte eta sailkapenak kontsultagai egongo dira erakundearen webgunean. Horrek ez dio, hala ere, ezeztatzeko eskubideari eragingo.

Ordainketa kreditu-txartelaren bidez egiten baduzu, zure datu pertsonalak probaren antolatzaileak zehaztutako banku-entitateari lagako zaizkio, kirol-proban izena emateari dagokion ordainketa kudeatu ahal izateko.

Erakundeak kirol-istripuei lotutako aseguru bat du izena emandako parte-hartzaile ororentzat. Beraz, ekitaldi honetan parte hartzeak esan nahi du berariazko onespena ematen duzula zure identifikazio-datuak erakundeak zehaztutako aseguru-etxeari lagatzeko, hala, proban istripuren bat izanez gero, laguntza egokia jasotzen duzula bermatzeko.

DATUEN KALITATEA

Erakundea ez da, inola ere, emandako datuen zilegitasunaren, egiazkotasunaren eta zehaztasunaren erantzule izango. Zure ardura da erakundeari datuetan izandako aldaketen berri ematea.

Izena emateko orrian (*) bidez markatutako eremuak nahitaez bete behar dira. Jakinarazten dizugu ez zaudela behartuta zure datu pertsonalak ematera eta adierazitako xedea betetzeko egokiak eta beharrezkoak direla datu horiek. Hala ere, ezinbestekoak dira zerbitzua eskaintzeko. Izena emateko inprimakian (*) bidez markatutako datuak ematen ez badituzu, baliteke, horren ondorioz, proban izena ematea ez onartzea, datuak beharrezkoak baitira eskaera kudeatzeko.

PARTE HARTZAILEA EZ DEN BESTE PERTSONA BATEK EGINDAKO IZEN EMATEA (KIROL TALDEAK ETA BESTE BATZUK)

Probako izen-ematea lasterketako parte-hartzailea ez den beste pertsona batek egingo balu (adibidez, kirol-talde batek bertako kide direnekin edo parte-hartzaile baten senide batek), izen-ematea eskatu duen pertsonak bermatu beharko du izena eman dien parte-hartzaileen baimen informatua duela Lasterketako Araudi honetan jasotako pribatutasun-politikan ezarritako baldintzen arabera bere datu pertsonalak tratatu eta laga ahal izateko.